

[Eusk/Cast] Borroka da bide bakarra / La lucha es el único camino

JON IURREBASO ATUTXA, FERMÍN SANCHEZ AGURRUZA :: 31/08/2019

A l@s camaradas de las FARC-EP:

[Euskara]

Borroka da bide bakarra

FARC-EPko burkideok:

Arreta eta interes handiz ikusi eta irakurri dugu zuen agiria: “***Mientras haya voluntad de lucha, habrá esperanza de vencer***”. Euskal Herriko komunista iraultzaile eta internazionalista proletario euskaldunak garen heinean, pentsatu dugu geure obligazio eta betebeharrak militantea zela honako hausnarketa hauek zuei helaraztea, geure borroka esperientzia eta eskarmentutik eginak, zuekin elkartasunez eta adiskidetasunez

Zuen erabakia, hau da, Kolonbiako baketze prozesu inperialista eta kontraintsurgente tranpatia bertan behera uztea eta borroka armatu politiko-militarrera itzultzeko inteligentzia estrategikoa izatea adore emalea izan da munduko iraultzaile guztiontzat. Zeren eta Kolonbiako prozesua pazifikazio, errendizio, amore emate eta tranpa genozida ikaragarria izan baita, eta ehunka lagun hil dira horren ondorioz. Bazen garaia armetara itzultzeko, armak entregatu ez zituzten militanteekin bat egiteko, baketze prozesu ustela onartu ez zuten **FARC-EP**ko gainontzeko kideak eta **ELN**ko gerrillariak. Zuen arteko koordinazioa pozgarria izanen da gu guztiontzat.

Zuen erabakiarekin bat egiten dugu: borroka egiteko borondatea den bitartean, garaitzeko itxaropena izango da. Euskal Herrian zuena bezalako baketze prozesu kontraintsurgente inperialista nozitu dugu, eta emaitza ezin okerragoa izan da: **ENAM**, Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren erabateko hondamendia, **ETA**ren desagertzea eta Euskal Herri Langilearen armak etsai frantses zein espainolei musu-truk oparitzea. Esperientzia garrantz eta mingarri honetatik idazten dizuegu, burkideok. Hamar urte eman dugu jadanik naufragio ikaragarri honen ondorioei aurre egiten, eta egindako oker, akats eta hanka sartzeetatik ikasiz, autokritika zorrozki eginez, Euskal Nazio Askapen Mugimendu Sozialista Iraultzailea berriro ere eraikitzen ari gara Euskal Herriko independentista eta sozialista iraultzaileok. neke eta zailtasun handien erdian aurrera goaz emeki emeki.

Kolonbian bezala, Euskal Herrian ere negoziazioaren estrategia aplikatu zen 80 hamarkadatik aurrera, eta zuek bezala, gu ere murgildu izan gara behin eta berriz baketze prozesu inperialista tranpatietan: Aljeria, 1986-1989; Lizarra-Garazi, 1998-1999; Suitza-Loiola, 2006-2007; eta azkena, 2010-2017. Esperientzia honetatik ikasitakoa zuekin partekatu nahi dugu, elkarrekin Iraultza Sozialistaren bidean denok batera aurrera jotzeko.

Urte hauetan ikasi dugu autokritika erradikal eta gupidagabea egin gabe, behin eta berriz akats berberak errepikatzen ditugula, hala Kolonbian nola Euskal Herrian ere. Negoziazio

estrategia bera oker dago, burkideok! Urteetako praktikak erakutsi digu hori, ez bakarrik Kolonbian eta Euskal Herrian, baizik eta El Salvadorren, Guatemalan, Irlandan, Hegoafrikan eta beste hamaika tokitan. Inperialismoak negoziazio prozesuak erabili izan ditu mundu osoan intsurgentzia suntsitzeko. Teoria Iraultzaileak esaten digun bezala, burgesiek eta oligarkiek ez dute boterea uzten beren borondatez, eta ez dute beren klase diktadura abandonatzen elkarrizketa politikoen bidez. Botere politiko eta ekonomiko hartu gabe, mugimendu iraultzaileok derrotara eta desagertzera kondenatuta gaude. Ez dago erdibiderik: Burgesiaren Boterea ala Herri Langilearena. Sozialismoa ala basakeria!

Ildo berean, pentsatzen dugu Londoño traidoreak lideratzen omen duen arrosaren alderdi sozialdemokrata, erreformista, elektoralista, posibilista, oportunista eta likidazionistaren kritika sistematikoa egin behar dela, Kolonbiako Herri Langileak jakin dezan argi eta garbi nolako kolaborazio maila duten gaur egun narko oligarkia yanki-sionista-santanderinoarekin. Zeren burgesia horrek ez baitu kolonbiar izena inolaz ere merezi, beren lurraldea Inperialismoari oparitu baitiote, **USA**ren 9 base baitaude Kolonbian, eta **OTAN-NATO**rekin elkarlanean ari baitira, Ameriketako herrialde antinperialistak (Venezuela, Bolivia, Kuba...) erasotzeko.

Burkideok, zuek oso ongi esaten duzuen bezala, Kolonbiako historian egindako negoziazio eta hitzarmen guztiak traizioan eta infamian amaitu dira. Oraingoa ere bai. Esperientzia horretatik ondorioak atera behar dira, oso mingarriak badira ere: estatu burgesekin ez dago deus ere negoziatzeko. Iraultzaren garaipena da irtenbide bakarra. Garaitu ala hil.

Horregatik, harriduraz entzun eta irakurri ditugu zuen agirian agertzen diren hitz eta esamolde batzuk, estrategia iraultzaile batekin nekez uztartzen direnak: ***“diálogo con empresarios, ganaderos, comerciantes y la gente pudiente del país”, “nuestro objetivo estratégico es la paz de Colombia con justicia social, democracia, soberanía y decoro”, “Un nuevo diálogo que corrija y encadene la perfidia y la mala fe, que involucre a las fuerzas guerrilleras y a todos los actores armados para que podamos fundar una paz definitiva, estable y duradera, sellada con el compromiso colectivo del Nunca Más. Un nuevo Acuerdo de Paz sin más asesinatos de líderes sociales y de ex combatientes guerrilleros, en el que las armas sean verdaderamente retiradas de la política y colocadas lejos de su uso, no entregadas”, “El Estado ha sido secuestrado por los forajidos y la mafia de la corrupción y la impunidad. Rescatarlo y liberarlo, está en manos de la movilización de las conciencias, de la nación en masa, del pueblo unido.”, “democratización en profundidad del Estado”...***

Burkideok! Zuengan konfiantza iraultzailea dugu, Internazionalismo Proletarioan oinarritua. Badakigu zuzentze estrategikoak ez direla egun batetik bestera egiten. Baina gure obligazio eta betebeharrak iraultzaile eta militantea da gure kezka sakona agertzea zuen aurrean. Teoria Iraultzaile Sozialista/Komunista Zientifikoaren oinarriek, behin eta berriz mundu mailako klase borroketan egiaztatu izan direnek, gure iparrorratza izan behar dute. Ezin dira inolaz ere baztertu, ahaztu edota abandonatu. Batez ere estatu burgesaren izaeraren ezaugarritzea eta horren inguruan dagoen azterketa zientifiko guztia. Gure begi niniak dira!

Berriz ere esango dizuegu, burkideok: zuen erabakia txalotu eta babestu egiten dugu,

Euskal Herrian zoritxarrez egin ez dena egiteko ausardia, adorea eta erabakimena izan baituzue. Mugarri bat ezarri duzue munduko mugimendu iraultzaile askorentzat, erakutsiz eta frogatuz baketze prozesu inperialista genozida tranpatietatik ateratzen ahal dela Herri Langilearen askapen eta emantzipazioaren kausa traizionatu gabe, borrokaren bidera itzuliz modu kontsekuentean, autokritika eginez eta zintzoki jokatzuz. Zuen meritua da hori, lagunok. Inperialismoak eta oligarkia yanki-sionista-santanderinoak ez dizuete barkatuko. Baina munduko iraultzaile guztiok biziki eskertzen dizuegu bihotz bihotzez esperantzaren sua ez amatatzea.

Zareten tokian zaretela, Euskal Herritik bidaltzen dizuegu besarkada iraultzaile bana. Euskal Iraultza Sozialistaren trintxera honetatik geure goraintzirik beroenak eta elkartasunik sutsuena. Txabi Etxebarrieta, Eustakio Mendizabal eta Argala gogoan, borrokan hildako euskal gudari iraultzaile guztiak bihotzean, Jacobo Arenas, Manuel Marulanda, Alfonso Cano eta Raul Reyes gogoan, borrokan hildako **FARC-EP**, **ELN** eta gainontzeko antolakunde iraultzaile kolonbiar guztietako gerrillari iraultzaileak bihotzean, hauxe esaten dizuegu:

GORA KOLONBIA INDEPENDENTE ETA SOZIALISTA!

GORA EUSKAL HERRIA INDEPENDENTE ETA SOZIALISTA!

JOTAKE IRABAZI ARTE!

[Castellano]

La lucha es el único camino

Camaradas de las **FARC-EP**:

Hemos visto y leído vuestro manifiesto con gran atención e interés: **“Mientras haya voluntad de lucha, habrá esperanza de vencer”**. En la medida en que somos comunistas revolucionarios euskaldunes, de Euskal Herria, hemos pensado que nuestro deber y obligación militante era haceros llegar estas reflexiones, hechas desde nuestra experiencia y aprendizaje en la lucha, en solidaridad y amistad con vosotros.

Vuestra decisión, es decir, dar por finalizado el proceso de pacificación imperialista, contrainsurgente y tramposo en Colombia, y el haber tenido la inteligencia estratégica de volver a la lucha armada político-militar, ha sido un motivo de esperanza para todos los revolucionarios del mundo. Porque el proceso colombiano ha sido una trampa genocida, una rendición y renuncia terribles, en suma, una pacificación, y a consecuencia de ello han muerto cientos de personas. Era ya tiempo de volver a las armas, de incorporarse con los militantes que no las entregaron: el resto de compañeros de las **FARC-EP** que no aceptaron el corrupto proceso de pacificación y los guerrilleros del **ELN**. Vuestra coordinación será un motivo de alegría para todos nosotros.

Nos identificamos con vuestra decisión: mientras haya voluntad de lucha, habrá esperanza

de vencer. Hemos sufrido en Euskal Herria un proceso de pacificación contrainsurgente parecido al vuestro, y el resultado no ha podido ser peor: la destrucción total del **MLNV**, el Movimiento de Liberación Nacional Vasco, la desaparición de **ETA** y el regalo por la cara a nuestros enemigos españoles y franceses de las armas propiedad del Pueblo Trabajador Vasco. Camaradas, os escribimos desde esta experiencia amarga y dolorosa. Llevamos ya diez años haciendo frente a las consecuencias de este naufragio terrible, y aprendiendo de los fallos, errores y meteduras de pata cometidas. Haciendo una autocrítica muy exigente, los independentistas y socialistas revolucionarios vascos estamos construyendo pasito a pasito otra vez el Movimiento Socialista Revolucionario de Liberación Nacional Vasco, en medio de muchos problemas y dificultades.

Como en Colombia, también en Euskal Herria se aplicó la estrategia de la negociación a partir de la década de los 80, y como vosotros, nosotros también nos hemos sumergido una y otra vez en los tramposos procesos imperialistas de pacificación: en Argel, en los años 1986-1987; con el acuerdo nacional de Lizarra-Garazi, en los años 1998-1999; en Suiza y Loyola, en los años 2006-2007; y el último, de 2010 a 2017. Queremos compartir con vosotros lo aprendido de estas experiencias, para avanzar juntos y solidarios en el camino de la Revolución Socialista.

En todos estos años hemos aprendido que, sin hacer una autocrítica radical y despiadada, repetimos una y otra vez los mismos errores, tanto en Colombia como en Euskal Herria. ¡Camaradas, es la propia estrategia de la negociación la que es un error! La práctica de muchos años nos ha enseñado eso, no solo en Colombia y en Euskal Herria, sino también en El Salvador, Guatemala, Irlanda, Sudáfrica y en muchos otros sitios. El imperialismo ha utilizado los procesos de negociación en todo el mundo para destruir la insurgencia. Tal y como nos lo demuestra la Teoría Revolucionaria, las burguesías y las oligarquías no dejan el poder por su propia voluntad, ni abandonan su dictadura de clase por medio de conversaciones políticas. Sin tomar el poder político y económico, los movimientos revolucionarios estamos condenados a la derrota y a la desaparición. No hay medias tintas: o Poder Burgués o Poder del Pueblo Trabajador. ¡Socialismo o Barbarie!

En este mismo sentido, pensamos que se debe hacer la crítica sistemática de partido socialdemócrata, reformista, electoralista, posibilista, oportunista y liquidacionista que aparentemente lidera el traidor Londoño, para que el Pueblo Trabajador de Colombia sepa claramente qué grado de colaboración tienen hoy en día con la narco oligarquía yanquisionista-santanderina. Ya que esa burguesía no merece de ninguna de las maneras el nombre de colombiana, puesto que le han regalado su tierra al Imperialismo, porque hay nueve bases de los Estados Unidos en Colombia, y están colaborando con la **OTAN** para agredir a los países antiimperialistas de América: Venezuela, Bolivia, Cuba...

Camaradas, como decís muy bien, todas las negociaciones realizadas a lo largo de la historia de Colombia han terminado en la traición y la infamia. La actual también. Hay que extraer conclusiones de esa experiencia, por muy dolorosas que sean: no hay nada que negociar con los estados burgueses. La victoria de la Revolución es la única solución. Vencer o morir.

Por eso, hemos oído y leído con asombro algunas palabras y expresiones que aparecen en vuestro manifiesto, que difícilmente se armonizan con una estrategia revolucionaria:

“diálogo con empresarios, ganaderos, comerciantes y la gente pudiente del país”, “nuestro objetivo estratégico es la paz de Colombia con justicia social, democracia, soberanía y decoro”, “Un nuevo diálogo que corrija y encadene la perfidia y la mala fe, que involucre a las fuerzas guerrilleras y a todos los actores armados para que podamos fundar una paz definitiva, estable y duradera, sellada con el compromiso colectivo del Nunca Más. Un nuevo Acuerdo de Paz sin más asesinatos de líderes sociales y de ex combatientes guerrilleros, en el que las armas sean verdaderamente retiradas de la política y colocadas lejos de su uso, no entregadas”, “El Estado ha sido secuestrado por los forajidos y la mafia de la corrupción y la impunidad. Rescatarlo y liberarlo, está en manos de la movilización de las conciencias, de la nación en masa, del pueblo unido.”, “democratización en profundidad del Estado”...

¡Camaradas! Tenemos confianza revolucionaria en vosotros, basada en el Internacionalismo Proletario. Sabemos bien que las reorientaciones estratégicas no se hacen de la noche a la mañana. Pero es nuestro deber y obligación revolucionaria y militante presentar ante vosotros nuestra profunda preocupación. Las bases de la Teoría Revolucionaria Socialista/Comunista Científica, que han sido comprobadas una y otra vez en las luchas de clases a nivel mundial, deben ser nuestra brújula. No se pueden de ninguna de las maneras marginar, olvidar y/o abandonar. Especialmente toda la caracterización de la naturaleza del estado burgués y todo el análisis científico que está a su alrededor. ¡Son las niñas de nuestros ojos!

Os lo diremos una vez más, camaradas: aplaudimos y apoyamos vuestra decisión, pues habéis tenido la audacia, el coraje y la determinación de hacer lo que en Euskal Herria no se ha hecho. Habéis marcado un antes y un después para muchos movimientos revolucionarios del mundo, probando y demostrando que se puede salir de los procesos de pacificación imperialistas, genocidas y tramposos sin traicionar la causa de la liberación y emancipación del Pueblo Trabajador, volviendo a la lucha de modo consecuente, haciendo autocrítica y actuando con honradez. Ese es vuestro mérito, amigos. El Imperialismo y la oligarquía yanqui-sionista-santanderina no os lo perdonarán. Pero todos los revolucionarios del mundo os agradecemos vivamente y de todo corazón que no hayáis apagado el fuego de la esperanza.

Estéis donde estéis, os mandamos a cada uno de vosotros un abrazo revolucionario desde Euskal Herria. Desde esta trinchera de la Revolución Socialista Vasca, nuestros saludos más calurosos y nuestra solidaridad más firme. Teniendo en la memoria a Txabi Etxebarrieta, Eustakio Mendizabal y Argala, teniendo en el corazón a todos y todas las combatientes revolucionarias vascas caídas en combate, teniendo en la memoria a Jacobo Arenas, Manuel Marulanda, Alfonso Cano y Raúl Reyes, teniendo en el corazón a todos y todas las guerrilleras revolucionarias de las **FARC-EP**, el **ELN** y el resto de organizaciones revolucionarias colombianas caídas en la lucha, os decimos esto:

¡VIVA COLOMBIA INDEPENDIENTE Y SOCIALISTA!

GORA EUSKAL HERRIA INDEPENDENTE ETA SOZIALISTA!

JOTAKE IRABAZI ARTE!

¡MIENTRAS HAYA VOLUNTAD DE LUCHA,

HABRÁ ESPERANZA DE VENCER!

¡LA LUCHA SIGUE!

¡CON BOLÍVAR, CON MANUEL,

CON EL PUEBLO AL PODER!

Jon Iurrebaso Atutxa. Fermin Xabier Santxez Agurruza (31.08.2019)

¡MIENTRAS HAYA VOLUNTAD DE LUCHA,

HABRÁ ESPERANZA DE VENCER!

¡LA LUCHA SIGUE!

¡CON BOLÍVAR, CON MANUEL,

CON EL PUEBLO AL PODER!

Jon Iurrebaso Atutxa. Fermin Xabier Santxez Agurruza (2019.08.31)

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-borroka-da-bide>